

8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu hau aurrera eramateko, bazkideok proiektuaren zati bat ordainduko dugu, horretarako, material-kantitatea eta fabrikatuko den edukiontzi-kopurua kontuan hartuta, bankuari mailegu bat eskatuko dugu.



Funtsezko baliabideei begiratzuz, honako hauek hartuko genuke gure ideia aurrera eramateko:

Baliabide fisikoei erreparatuta, lehenik eta behin, lokal bat edukitzea ezinbestekoa da produkzioarako. Nahiko handia izan beharko lukete, izan ere, ekoizpenaren bolumena handia denez, leku handia beharko genuke produktu kopuru handia ekoizteko. Lokala sektoreetan banatuta egongo da, bakoitza dagokion lanaren arabera. Hasteko, bulegoak ezinbestekoak dira. Departamentu bakoitza bulego bat izango luke, beharko duen ekipamentuekin hornituta.

Horretaz gain, ekoizpen sala bat egongo da. Bertan, makina ugari egongo dira produkzioa gauzatzeko. Horrela, eskaera bat egongotekotan, edukiontziak prest egongo liriateke zuzenean bidaltzeko. Sala honetan, biltegi bat egongo litzateke, sektoreetan banatuta; produktu bukatuak, produktu erdibukatuak eta lehengaiekin. Bukatzeko, kamioi batzuk beharko genituzke produktuak leku guztietara transportatu ahal izateko. Beste herrialde batzuetara hedatzen bagara, herrialde horietan azpiegitura eta garraio berdinak izango genituzke.

Baliabide intelektuekin jarraituz, gure lantegien langileen maila intelektuala ez da oso espezifikoa izan behar, bertan irakatsiko genieke makinen funtzionamendua eta nola egin behar den. Aldiz, bazkideak eta departamendu desberdinen langileak kualifikazio bat eduki beharko lukete, modu eraginkor batean, lana aurrera eramateko.

Proiektu hau aurrera eramateko, bazkideok proiektuaren zati bat ordainduko dugu, guztiok diru kopuru berdina. Bestalde, material-kantitatea eta fabrikatuko den edukiontzi-kopurua kontuan hartuta, aurreikusiko dugu diru kopurua ez dela nahikoa, horregatik bankuari mailegu bat eskatuko diogu.

HASIERAKO INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA

INBERTSIOA		FINANTZAKETA	
Aktiboa			
Eraikuntzak	300000	Fondo propioak	
Altzariak	30000	Kapital Soziala	247500
Ordenagailuak	7500		
Ibilgailuak	8000	Kanpoko finantzaketa	
Tresnak	2000	Maileguak	500000
Makinak	300000		
Garraioak	100000		
Inbertsioa guztira	747500	Finantzaketa denera	747500